




GAUTEGIZ-ARTEAGA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hondo gorrian urrezko banda, dragante-buru berdeek irentsia; galdara baltz bana ditu alboetan, uhin urdin eta zilarrezkoen ganean.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de gules, una banda de oro engolada en cabezas de dragantes de sinople, acompañada de dos calderas de sable una a cada lado, sobre ondas de azul y plata.

AITAMEN HISTORIKOA

Busturiko merindadeko eleizatea. Gernikako Batzar Nagusietan 14. eserlekua eta botua eukazan. VIII. mendean Gonzalo Fuerte de Noreñak eta bere seme Fortún Ordoñezek Gautegizko gotorretxea egin eben, eta mende bi geroago, 914an, Sancho García de Noreñak Arteagakoa. Horreek biek alkartuta emon eutsien izena eleizateari.

García de Salazarrek aitatzten dauanaren arabera, Arteaga etxearen jabeak, Fortún de Garcíak, barriro eraiki egin eban etxea, XIV. mendearen azkenerantz Pedro I.a Gaztelakoa erregearen aginduz Legution hil aurretik. Baina

Bizkaiko Jaurerriko lurretan egin ziran burruka latzetan Arteagaren kontrako bandoek, Juan Alfonso de Mujika eta Pedro de Abendaño, dorrea hondatu eben. Gertaera hori 1468koa da, eta mende bat geroago barriro eraiki eben gotorretxea eta harlanduzko harresia ipini eutsien babesteko, kubo eta kanoi-zulo eta guzti.



RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia perteneciente a la merindad de Busturia. Ocupaba el asiento y voto nº 14 en las Juntas Generales de Gernika. La casa fuerte de Gautegiz, construida en el siglo VIII por Gonzalo Fuerte de Noreña y su hijo Fortún Ordóñez, y la de Arteaga, levantada dos siglos más tarde (914) por Sancho García de Noreña, fueron las que, reunidas, dieron origen a la denominación de la anteiglesia.

Según García de Salazar, el dueño de la casa de Arteaga, Fortún de García, se encargó de reconstruirla antes de ser ejecutado por mandato del rey Pedro I de Castilla en Villarreal de Alava a fines del siglo XIV. Sin embargo, durante las encarnizadas luchas entre linajes que co-

noció el Señorío de Bizkaia, la torre fue destruida por los banderizos enemigos de Arteaga, Juan Alfonso de Mújica y Pedro de Abendaño, en 1468. Un siglo más tarde la casa fuerte fue reconstruida y reforzada sólidamente para su defensa con una muralla de piedra sillar, cubos y baluartes con troneras para piezas de artillería.